

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko bigarren seiheleko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea**

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2020ko bigarren seihelekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, baita 2021eko uztailaren 14an onetsi ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunetz jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea, baina, aldeztatik administrazio batzarreko lehendakariari jakinarazi behar zaio, aretoa irekitzeko eguna eta ordua finkatzeko.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorrit Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluen 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko abuztuaren 10ean hasi eta urriaren 11n bukatuko da, egun biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak 2021eko abuztuaren 12an kobratuko dira.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Barron, 2021eko uztailaren 14a

*Errejidore-lehendakaria*

*ANTONIO FERNÁNDEZ DE PALOMARES LAZCANO*